

gaz-teak



Doako alea

317 Zb.
www.getxo.eus

>> 2017ko urria

IDEIA SORTZAILEEN BILA

WANTED

10.000 €

ARTEKO SARIA

Inklusio Zerbitzuak aniztasun funtzionala duten pertsonen eta familiei laguntza eskaintzen segitzen du

2017-2018ko ikasturtea hastear dago eta Inklusio Zerbitzuak familia eta pertsona gazte guztiei hurbiltzeko gonbita luzatu nahi die, desgaitasunen bat badute. Zerbitzuak aniztasun funtzionala duten gazteen partaidetza sustatu eta bultzatzeko lanean dihardu, ingurunean aisialdi, kultura, kirol, prestakuntza eta boluntarioen eremuetan herritarrentzat irekiak diren jardueren eskaintzan noizean behin laguntza mugatua behar izaten dutelako. Ildo horri eutsiz, aniztasun funtzionala duten edo ez duten pertsonentzat laguntzak zehaztu eta koordinatzen dira, gizartean jardueretan esku hartzeko. Jarduera inklusiboek ikur beizgarria dute, hau da, esku urdina, lau hatzez hornitutakoak.

Balantzea

Zerbitzua abian jarri zenetik, 2016-2017 ikasturtean, programa 42 gizarte erakunde, elkarte eta ikastetxetan aditzera eman zen. Aldi berean, familiarrean 22 elkarrizketa egin ziren eta desgaitasunen bat zuten 14 pertsona Gazteria Zerbitzuak eskaintako lantegiren batean eta Gazteleku izeneko gunean inskribatu ziren. Azkenekoa 11 urtetik 17 urtera bitarteko pertsonen topaketa eremua da.

Denboraldi horretan hiru "Inklusio Plan" jarri ziren abian eta norberaren autonomia sustatzeko berariazko helburuak lantzen dira. Era berean, aisialdi, olgeta eta prestakuntza jardueri dago-kenez, erabakiak hartzea bultzatzen dira. Horrez gain, komunikaziorako gizarte bitartekoak gaitu dira eta 2017ko apirilean, udalerrian egonda, parke inklusiboetako buruzko kanpaina txikia abiarazi zen, behar bezala erabili ahal izateko.

Zerbitzuak harrera ona izan du. Era berean, haurrentzako jardueren eskaintza gehitzea segitzen dute eskatzen familiek.

Informazio gehiago: inkluisioa@getxo.eus /688691527



Generation proiektua

Generation Spain izeneko langabezia dauden gazteei ibilbide profesional iraunkor eta motibatzailea eraikitzen laguntzeko ekimena da. Gaur egun, Generation-ek Java web programazioan 14 asteko formakuntza eskaintzen die gazteei, herrian bertan. Aurrez aurreko metodologia izango da, praktikoa eta enpresa proiektu errealean oinarritua. Ekimenen 900 lagunek baino gehiagok parte hartu dute orain arte. Hauetatik %80ak lana aurkitu du programa amaitu eta, gehienez sei hilabetera. Era berean, hauetatik %90ek lanean jarraitzen dute handik hiru hilabetera eta handik sei hilabetera %50ek kontratu mugagabea zeukan. Formakuntza doakoa da, Europako Gizarte Fondoak finantzatutakoa baita.

Langabezia dauden pertsonak Getxo Elkartegian (Ogoño kalea 1, Areeta), urriaren 10ean, asteartean, 19:30ean proiektua aditzera emateko egongo den informazio siora bertara daitezke. #Revolucióngener.

Beldur Barik! Lehiaketaren edizio berria

Datorren azaroaren 13ra arte zabalik egongo da Beldur Barik Jarrera! Lehiaketaren 8. ediziorako lanak aurkezteko epea. Lehiaketaren xedea da emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerei aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartzea, baloratzea eta bultzatzea. Lanak errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dira. 12 eta 26 urte bitarteko gazteek har dezakete parte. Informazio gehiago: www.beldurbarik.org, beldurbarik@gmail.com eta 688 733 497

Gaztelekuaren programazioa

Urria

Hilak 4, asteazkena: MASTERCHEF: TORTITAK

Hilak 6, ostirala: TAILERRA: SEXUALITATEA

Hilak 14, larunbata, eta 26, osteguna: ARTEAREN HILABETERA

Urriak 15, igandea: ESKULANA: BIRZIKLATU ZURE TXAPELA

Urriak 17, asteartea: MASTERCHEF: PLATANO ETA TXOKOLATE BROTXETA

Urriak 18, asteazkena: EKINTZA: ERLAXAZIOA

Urriak 21, larunbata: IRTEERA: GAZTELEKUA KALEAN: TALO TAILERRA

Urriak 25, asteazkena: TOPAKETA

Urriak 27, ostirala: EKINTZA: MAGIA



"Wanted" Ideia Lehiaketa banakako proposamenentzat zabalduko da aurten

Wanted Ideia Lehiaketa, talde-kako ohiko proposamenentzat ez ezik, banakakoentzat ere zabalduko da aurten. Ekonomia Sustapen Arloak eta Gazteria Zerbitzuak Getxoko gazteen proiektuei laguntzeko antolatutako lehiaketa da. Zehazkiago, lehiaketa hau ideia edo proiekturen bat duten 18 urtetik 30 urtera bitarteko gazteentzat eginda dago eta bere xedea hori gauzatzeko baliabideak eskaintzea da.

Aurreko urteetan bezala, diruaz gainera, irabazleei beste era bateko laguntza ere eskainiko zaie proiektuak abian jartzeko, hala nola aholkularitza profesionala, orientazioa, formakuntza eta abar. Sarietarako aurrekontua 22.000 €-koa da, guztira, nahiz eta proiektu batek jaso dezakeen

gehienezko laguntza 10.000€-koa izango den.

Ideiak eta prozedura

Honako proiektu motak aurkez daitezke: antezlan txikiak edo *performanceak*, film laburrak, erakusketak, enpresa proiektuak, edozelako lehiaketak antolatzea, web orriak, ikastaroak eta tailerrak, gizarte arazoetan sentiberatzeko proiektuak, euskaren erabilera sustatzeko proiektuak, dibulgaziozkoak... Hau da, orotariko proiektuak, berriak izan ala ez, baldin eta gure herriaren gizarte, ekonomia edo kultura aberasten badute.

Prozedura oso erraza da. Urriaren 9tik 26ra bitartean proiektuaren zirriborro bat aurkeztu behar da, gidoi txiki bati jarraituz, non proiektuari buruzko oinarritzko

informazioa bilduko den. Fase horren ondoren, sustatzaile guztiak, taldearen edo norberaren izenean, lan saio batera gonbidatuko dira, proiektuok berriro egin eta hobetzeko proposamenak egiteko.

Aurten ere, sustatzaileei proiektuak lantzen laguntzeko, bi lantegi eskainiko zaizkie, urriaren 18an eta azaroaren 22an, 18:30etik 20:30era. Biak ere Elkartegian egingo dira (Ogoño kalea 1, z.g., Areeta). Aurretik izena eman behar da Gazte Bulegoan (Tangora Etxea).

Deialdiaren oinarriak, baita gidioa eta gainontzeko eranskinak, eskuragarri daude Herritarren Arretarako Bulegotan (HAB), Getxolanen (Getxo Elkartegia), Gazte Bulegoan (Tel.: 944660353) eta www.getxo.eus/gazteria web orrialdean.

Ibilaldiak globoan, Gazte Txartelarekin

Gazte txarteladunek bi ibilaldi bikoitz globo aerostatikoan egiteko zozketan parte ahal izango dute (eperik gabe, zozketa egiten den egunetik aurrera). Ordu eta laurdenero ibilaldia globoan izango dira, Urduña eta Gaubea inguruan.

Horretarako formularioa bete beharko da norbanakoaren datuekin azaroaren 27a baino lehenago www.gazteukera.euskadi.eus webgunean. Zozketa irabazten dutenek e-maila jasoko dute, eta hegaldiaren erreserba Globos Estratos enpresarekin formalizatzeko beharrezkoak diren argibideak emango zaizkie bertan.

Zozketa honetan parte hartzeak zera adierazi nahi du, Gazte-txartelak bere zozketetan eta lehiaketetan aplikatzen dituen baldintza orokorrak onartzen direla.



IV. Book Trailer Lehiaketa

Datorren maiatzaren 11ra arte zabalik egongo da Book Trailer Lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea. Kalabazan Kultur Ekimenak-en eta Udaleko Gazteria Zerbitzuaren, Euskara Zerbitzuaren eta Udal Liburutegiaren artean martxan jarritako lehiaketak irakurzaletasuna euskaraz sustatu nahi du 12-18 urte bitarteko gazteen artean. Egin beharreko lana da aukeran ematen diren liburuetako bat irakurri, eta horren trailerra egitea.

Betebeharrak eta ezaugarriak

Gehienez hiru pertsonako taldeek parte hartu dezakete, Getxokoak izanda ala ez, eta lanak maiatzaren 11a baino lehen helarazi beharko dituzte [\[zan@gmail.com\]\(mailto:zan@gmail.com\) helbiera. Bideoak Youtuben eskegi eta lotura e-mailez bidali beharko dira.](http://sardadilakalaba-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Bi kategoria egongo dira: A kategoria (16-18 urtera) eta B kategoria (12-15 urtera). Kategoria bakoitzeko talde irabazleak 300€ jasoko ditu eta bigarrenek eskola materiala erosteko 50€ kide bakoitzarentzat. Halaber, publikoaren saria ere emango da, abentura kamera bat.

Oinarri guztiak: www.kalabazan.com webgunean daude.

Bestalde, urriaren 24ra arte zabalik egongo da BOOKTUBERBOOM lehiaketara grabazioak aurkezteko epea, 14 urtetik 18 urtera bitartekoentzat.

<https://booktuberboom.wordpress.com/lehiaketa>